



## KIROL CAMPUSA-ASTE SANTUA 2023

Jarduera fisikoa funtsezkoa da gizakiontzat eta, batez bere, umeentzat. Izan bere, garapen fisikoa eta psikologikoa modu osasungarrian egiten laguntzen dau eta, ganera, adiskidetasuna, lankidetzeta, hobetzeko nahia eta antzeko jarrerak eta jokabideak sustatzen ditu.

Datorren Aste Santuan, kirola sustatu eta bultzatu gura dogu gazteenen artean, eta, horretarako, hainbat edadetarako jarduerak antolatu doguz, modu orekatuan bananduta.

Helburua hau da: batetik, eskola-oporraldian familia-kontziliazinoan laguntzea, eta, bestetik, umeek oporrak era atseginean gozatzeko errea izan daieela.

Kanpua euskeraz egingo da, hau da euskera izango da bertan oinarrizko komunikazio hizkuntza, baina, irakasle guztiak elebidunak izanda, ez da arazorik egongo edozein ume parte hartzeko.

**EDUKIAK:** jolasak, kirola, dantzak, igerilekua, txangoak, tailerrak, eta abar

**EDADEA:** 2009tik 2019ra bitartean jaiotako umeak (\*Izena emon ahal izateko, 4 urte beteta euki beharko dira ikastaroa hasi aurretik)

**EGUTEGIA:** apirilaren 3tik 14ra

**ORDUTEGIA:** 9:00-14:30

**TXANDAK:**

1. TXANDA: APIRILAREN 3tik 5era bitartean
2. TXANDA: APIRILAREN 11tik 14ra bitartean

**PREZIOAK**

	ABONATUAK	ABONATU BAKOAK
APIRILAREN 3-5 aldia	49,5 €	57 €
APIRILAREN 11-14 aldia	66 €	76 €

### IZEN-EMOTEA:

- Martiaren 13tik 22ra arte (biak barne).
  - Internet bidez, Udalaren web orrian: <https://www.mungia.eus/es/kirol-campusa-aste-santua-2023>
  - Kiroldegian, administrazino-ordutegian
- Martiaren 24an, onartuen behin-behineko zerrendea.
- Martiaren 27 eta 28an, aldaketak eta baja-epea.
- Martiaren 29an, behin betiko zerrendak.

### BALDINTZAK:

-Taldeak osatzeko, gitxienez 8 lagunek egon beharko dabe izena emonda.

-Plaza kopurua mugatua da. Mungian erroldatutako umeek lehentasuna izango dabe.

### EPEZ KANPOKO ESKAERAK:

Eskabide horreekaz plaza libreak daukiezan taldeak osatuko dira (onartutakoei telefonoz jakinarazoko jake). Talde guztiak osatu ostean, ez da eskaera gehiagorik hartuko.

### KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- **DERRIGORREZ EKARRI BEHARREKO MATERIALA:** eguneko programazino espezifikoan zehazten dan guztiaren ganera (behar danean zehaztuko da), derrigorrez ekarri beharko da botilatxu bat ur. Horren ganera, tamaina ertaineko toalla bat eta aldatzeko erropea ekarri beharko dira, edozein gorabehera gertatu ezker, eskura izateko.
- **SARRERA ORDUA:** 9:00etan hasita.
- **DUTXAK:** dutxea egunero egingo da eta aldatzeko erropea eta txankletak ekarri beharko dira.
- **IGERILEKUA:** umearen igeriketa-mailaren barri emon beharko da programazinoan igerilekuaren jarduerara agertzen danean.
- **HAMAIKETAKOA- FRUTEA:** atsedenaldi 2 egingo dira campusaren ordutegi barruan, eta jateko bere atsedenaldiok erabiliko dira. Horretarako, egunero ekarri beharko da **frutea** (zatitua eta ontzi baten gordeta); horren ganera, beste **elikagai osasungarri** batzuk bere ekarri ahal izango dira, gura izan ezker. Edateko ura baino ez da ekarri behar.